



EUSKAL HIRIGUNE
ELKARGOAREN

KULTURA- PROIEKTUA

© Bilaka Kolektiboa - Olivier Houeix



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION

  @communautePB | communaute-paysbasque.fr



LEHENDAKARIAREN SAR-HITZA



Sorioneku,

Euskal Hirigune Elkargoak bere kultura-proiektua abiatu du, Irulegi mendian, Nafarroan, aurkikuntza garrantzitsu bat egin delarik. Izan ere, 2.000 urtetik gorako brontzezko eskua agertu da han, euskararen historiari argi berri bat ematen diona. Sorioneku dio: “zorioneko”. Adituen arabera, esku horrek erritu-funtzioa zuen, etxearen babes-ikurra zen, eta “zorion” ekarle omen zen bertan bizi edo sartzen zirenentzat. Ez zitekeen ikur hoberik igurika gure kultura-proiekturako.

Aurkikuntza horrek oroitarazten digu kultura ez dagoela geldirik, baizik eta bizirik; eta aurkikuntza horrek gogorarazten digu kulturak orainean batzen gaituela, baina baita gure iraganari eta historiari lotzen gaituela ere. Kulturak biziari zentzu kolektiboa ematen dio,

gizakiei balore berak ematen dizkigu; gainera, gizarte- eta lurralde-kohe­sio­ra­ko adierazpidea da, jarduera eta enplegua sortzen dituen sektorea da eta emantzipazio­ra­ko bidea da herritarrentzat.

Gure kultura-proiektua bereziki haur eta gazteei zuzendu diegu. Horrela, gure haurren bizian kulturak duen garrantzia berresten dugu, haiek gazte-gaztetik izpiritu kritikoa landu ahal izan dezaten. Hala, udalerriekin, eskolekin, Hezkunde Ministerioarekin eta irakaskuntza artistikoko establimentuekin lankidetzan, gure haur eta gazteei beren begiekin eta pantaila baten laguntzarik gabe liluratzeko aukera eskaintzen diegu.

Etorkizuneko desfioei buru egiteko prestatzen ditugu ere. Izan ere, gure zibilizazioaren historia, Errenazimentutik hona, aurrerapenaren ideiarekin lotuta dago, naturaren menderatzearen ideia barne. Baina, Lurra andeatu dugu, gure ondokoei mundu bizigabe bat transmititzeko heineraino. Gizarte guziek altxatu beharko duten desafio hori gizakien historiako desfiorik handiena da orain, eta haren dimentsio kulturalak horretara behartzen gaitu.

Gure haurrei tresna berriak eman behar dizkiegu munduaren irudikapenak eta lurrarekilako eta bizitzarekilako harremana berriz asmatzeko. Behar hori zuzentzen zaie kultura-ekoizle eta pentsamenduaren, artearen eta poesiaren arlo guzietako sortzaile guziei. Baina beharra izateaz gainera, aukera ere izan daiteke haientzat berriz liluratzeko, elkartasuna agerrarazteko edo batzuetan indibidualismo gero eta handiagoak markatutako gure biziak berriz pizteko. Pandemiak kultura-sektorean izan duen eragina kezagarria da oraindik ere. Hala, sektore osoak galde anitz egiten ditu, gero eta hetsiagoak diren lineako plataformen eta sare sozialen jendeen arreta erakartzeko ahalmenagatik.

Baina, horren aitzinean, gure lurraldeak, Ipar Euskal Herriak, sekulako sormen- eta kultura-bizitasuna du, dimentsio parte-hartzaile ohargarriarekin; eta bizitasun hori irudimenen estandarizazioaren eta zerratzearen kontrako harresia izan daiteke. Bizi kultural hori azkarki sostengatu behar da; eta bizi kulturalaren sostengatzea ekintzen bidez adierazten dugun obligazio demokratikoa da. Horretarako, lurralde-berdintasuna zaintzen dugu, kultura-eragile guzien lankidetzeta eta saretzea sustatuz.

Horrela, behar bikoitz bati erantzuten diogu: alde batetik, behar demokratiko eta sozialari, eta, bestetik, behar pertsonal eta intimoari. Denek batera eta bakoitzak bere eginkizunak betez, gure lurraldeari eta gure haurrei “sorioneku” etorkizuna ekar diezaiegun!

Jean-René Etchegaray

Euskal Hirigune Elkargoaren Lehendakaria

Lehendakariordearen aitzin solasa



Partekatzearen kultura baten alde

Kultura, berez, partekatzen den arlo bat da, lurralde bateko biztanleen artean, elkarleen eta erakundearen artean, tokiko elkargoen eta Estatuaren artean. 2017an, Euskal Hirigune Elkargoa sortu zelarik, hautetsiek aho batez onartu eta berehala hartu nahi izan zuten eskumen honen ardura. Izan ere, hautuzko eskumen bat baino gehiago, belaunaldien eta lurraldeen arteko lotura da kultura.

Kultura-proiektu hau lehenik hautetsien arteko hitzartzearen eta ondotik lurraldeko eragileekin eta gure partaideekin egin trukaketen emaitza da. Berpiztu izeneko gure laguntza planaren segida logikoa da hau, zeina kultura-eragileek adierazitako beharrak asetzen saiatu baita eta zeinak gure lekua berretsi baitu herri multzoaren ordezkari gisa. Hala, kultura-proiektu honek gure jarrera zehazten du –gainerako erakundearen lanaren osagarritasunean–, eta gure ekintzaren

lehentasunak finkatzen ditu. Lau ardatz estrategikok gidatuko dute gure ekintza ondoko urteetan: haur eta gazteei eskainitako kultura-politika, kultura-eskaintza lurralde osoan orekatzea, hautatutako sail artistikoak egituratzen laguntzea eta euskarazko eta okzitaniera-gaskoizko kultura-adierazpena laguntzea.

Halaber, kultura partekatzearen arloa da. Aniztasun linguistiko, soziologiko eta kulturalean hain aberatsa den gure lurraldean, Ipar Euskal Herrian, kultura-eskubideen alde ari izateak ondorio gisa dakar denei beren kulturarako eta besteen kulturetarako sarbidea izateko eta haietan parte hartzeko aukera ematea, jatorri soziala edo bizi lekua edozein izan dadin. Gure lurraldean beste batzuetan baino eragin gutiago du muturreko ideien gorakadak, eta hori, naski, hemengo kultura biziari zor diogu bereziki, denen ongizatea bermatu eta elkarbizitzarako oinarri sendoak finkatzen baitu.

Gure xedea da aitzinean ditugun erronka ekologikoei erantzunen dien kultura-proiektua proposatzea, eta, hain zuzen ere, arteak gai horiei buruz galdera anitz pausatzerak behartzen gaituelako izan behar du ahal bezainbat jenderen eskura. Beste arlo batzuek ez bezala, arte gehiegi kontsumitzeak ez du baliabidea suntsitzen!

Era berean, gure kulturen aberastasunak partekatu behar dira, elkarrekikotasun-eremu bat sortu behar da, pertsona orok bere usaiez haratago ikus dezan eta eragileek kultura herrikoi, klasiko edo garaikide, profesional edo amatur, gaskoi, euskaldun eta frantsesean proposatzen duten guzia ikus dezan.

Kultura-proiektu hau pentsatu dugu Euskal Hirigune Elkargoaren artean eta kulturaren aldeko dinamika berri baten oinarriak ezarriko dituen lehen urrats gisa. Ekintza horiek pixkanaka gauzatuko dira, eta lurraldea eta bertako eragileak entzuten segituko dugu, Ipar Euskal Herriaren kultura-garapena hobeki laguntzeko.

Eskerrak ematen dizkiet hemen Kultura Batzordeko kide guzietan, kultura-eragileei, partaideei eta Euskal Hirigune Elkargoko langile taldeei, hitzartze emankor horri esker, gure desmarxa oinarri sendoen gainean finkatu baitute.

Antton Curutcharry

Kulturaren, hizkuntza politikaren eta elkargoko kultura-ekipamenduen ardura duen lehendakariordea

Aurkibidea

Lau xede kulturarako

1. Haur eta gazteentzat	8. OR.
Arte- eta kultura-heziketa sustatzea	9. OR.
Irakaskuntza artistikoa indartzea	11. OR.
Haur eta gazteentzat egina den sorkuntza artistikoa bultzatzea	13. OR.
2. Hurbileko kultura-eskaintza sustatzeko	14. OR.
Obra eta ikusleak lurraldean ibilaraztea	15. OR.
Obretarako sarbidea erraztea	16. OR.
Lan eta hedatze guneen sorkuntzaren bidez, kultura-eragileen finkatzea erraztea	18. OR.
3. Hautatutako sail artistikoak egituratzeko	20. OR.
Bost sail artistiko hautatzea	21. OR.
Sail artistiko bakoitzeko sostengu-politika pixkanaka eraikitzea	22. OR.
Praktika herrikoien eta profesionalen arteko hurbilketa bultzatzea	24. OR.
Kulturarentzat diru-baliabide berriak garatzea Ipar Euskal Herrian	24. OR.
4. Euskarazko eta okzitania-gaskoizko adierazpen artistikoa indartzeko	26. OR.
Euskaraz egiten diren praktika herrikoiei ekarritako sostengua indartzea, Euskal Kultur Erakundearen bidez	27. OR.
Euskarazko sorkuntza eta hedapena garatzea	28. OR.
Euskal kultura belaunaldi gazteei transmititzea	29. OR.
Gaskoi kulturaren transmisioa, sorkuntza eta hedapena sustatzea	31. OR.
Eranskina - Asmoak gauatzeko bidean	32. OR.
Elkarlanean eraikitako proiektua	33. OR.
Diagnosticako partekatua	34. OR.



Lau xede
KULTURAREN alde

HARI nagusia: LURRALDE-PROIEKTUA



Kultura-proiektu hau lan kolektibo eta espezifiko baten emaitza da. 2022ko uztailaren 9an bozkatutako Euskal Hirigune Elkargoaren lurralde-proiektuaren parte da.

IPAR EUSKAL HERRI ERRESILIENTEA

Gure baliabideak zaintzeko, kultura-proiektu hau azkenean azkarki agertzen da praktika artistiko eta kulturek ingurumenean eta energian duten eragina kontuan hartzearen alde. Bereziki sustatuko ditu joan-etorri kolektiboak, hondakinen murrizketa eta berrerabilera, baita zirkuitu laburrak eta euskoaren erabilpena ere.

IPAR EUSKAL HERRI BIZIA ETA ERNEA

Gure hiri eta herriak dinamizatzeko, haurrak eta gazteak dira kultura-proiektu honen lehentasuna. Arte- eta Kultura-Heziketaren (AKH) arloan asmo handiko ekintza antolatuko da udalerriekin eta beste erakunde publiko batzuekin –batez ere Frantziako Hezkunde Ministerioarekin– lankidetzan.

Kultura-proiektu honen bigarren xedea da hurbileko, dibertsifikatutako eta kalitatezko kultura-eskaintza baten garapenean parte hartzea. Horretarako, Euskal Hirigune Elkargoa lurraldearen saretzearen alde ariko da, kultura-eskaintzari eta kultura-ekipamenduei dagokienez.

Kulturak eta hizkuntzak lurraldearen aberastasun eta berezitasunetarik bat direnez, kultura-proiektu honen beste nahia da euskara eta okzitania-gaskoia sostengatzea, praktika kulturaletan.

IPAR EUSKAL HERRI ENGAIATUA

Gure garapen ereduak hobetzeko, Euskal Hirigune Elkargoak lagunduko ditu hautatutako honako bost sail artistiko hauen jalgitzea eta azkartzea: dantza, arte bisualak, antzerkia, musika eta zinema. Horrela, ekosistema eta dinamika onuragarriak sortuko dira eragile bakoitzarentzat, eta baliabide artistikoa mantenduko da lurraldean. Gainera, mugaz gaindiko ekimen berriak bultzatuko dira.

Hurbiltasuna eta osagarritasuna, Euskal Hirigune Elkargoko udalerriekin

Euskal Elkargoak esku hartzen du udalerrien osagarritasunean, subsidiarotasunaren printzipioaren arabera. Horren ondorioz, kultura-eskaintza murrizta den udalerritik eta lurraldeetan partikulariki garatuko dira kultura-denboraldiak: sorkuntzarako laguntza, eta herri-multzoaren parte diren haur eta gazteei zuzendutako bitartekaritza eta hedapena (hautzaindegietan, lehen mailako eskoletan eta aisialdi zentroetan). Ipar Euskal Herriko 158 udalerrietatik hamar batek baizik ez dute kulturari eskainitako zerbitzurik. Euskal Elkargoa kultura-ingeniaritzako baliabidea izanen da horren beharra adieraziko duten udalerrientzat: herriarteko- edo elkargo-mailako proiektuen osperako laguntza, aholkularitza zehatzagoa (obrak hautatzea, kostuak bateratzea...) eta bere gaitasun-arloei buruzkoa (haurren eta gazteak, euskarazko antzerkia, hiri-arteak...).



MITZĂ MITZ

nismikazot



#1

Haur eta Gazteentzat

Arteak eta kulturak haurretik laguntzen diote pertsona ororen garapenari, emantzipazioari eta sormenari. Beraz, Euskal Hirigune Elkargoaren kultura-proiektuaren lehen xedea da haurren eta gazteen alde ari izatea. Hori bereziki gauzatzen da Arte- eta Kultura-Heziketaren (AKH) aldeko asmo handiko politikaren bidez, haur eta gazteek irakaskuntza artistikoetarako, artelanetarako eta praktika amaturretarako sarbidea izan dezaten.

Arte- eta Kultura-Heziketa sustatzeari

Arte- eta Kultura-Heziketa (AKH) hiru ardatzetan oinarritzen da:

- **Kultura-guneetan maiz ibiltzea:** obra eta artistak ikusteko;
- **Praktikatzea:** arte-diziplina bat edo gehiago ikasi edo lantzeko;
- **Beretzea:** artearen eta kulturaren arloko ezagutzak eta erreferentzia-puntuak biltzeko.

~ KULTURA-ERAGILEEN PROIEKTUETAN AKH SUSTATZEA

Dirulaguntzak emateko politikaren bidez, Euskal Elkargoak sustatuko du kultura-eragile profesionalek AKHeko proiektuak garatzea, honako publiko hauentzat: haurrak – haurtzaindegietan, ama eskoletan, lehen mailako eskoletan, aisialdi zentroetan– eta kolegioko ikasle gazteak euskarazko eta okzitaniera-gaskoizko proiektuetarako bakarrik.

©Euskal Elkargoa - Côté Sud Photo / Orkestra eskolan



~ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK ETA IKASTETXEEK SUSTATUTAKO AKH ETA BITARTEKARITZA EKINTZAK SEGITZEA

- Euskal Elkargoak, lurraldeko eskoletako irakasleekin eta Hezkunde Ministerioarekin lankidetzan, AKH eta bitartekaritza ibilbideak plantan ezartzen ditu. Ibilbide hauek aukera ematen diete ehunka haur eta gazteri sail artistiko bat ezagutzeko eta kulturaren arloko artistak, obrak eta profesionalak ezagutzeko.
- Euskal Elkargoak, lurraldeko irakaskuntza artistikoko estableimenduekin lankidetzan, “Orkestra eskolan” izeneko baliabidea plantan ezartzen du, ikastalde bereko ikasleei aukera ematen diena hiru urtez orkestra bat sortzeko. Asteaz bi orduko erritmoan, eta eduki pedagogiko egokituari esker, ikasleek ikasi eta berehala kausitzen dute musika maila ona.

~ ELKARLAN INSTITUZIONALAREN ESPARRUA SORTZEA AKH-ERA KO:

Euskal Hirigune Elkargoak akuilaturik eta bakoitzaren eskumenen arabera, Frantziako Estatua (DRAC, Hezkunde Ministerioa), Akitania Berriko Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale, Hendaia, Maule eta Donibane Lohizuneko udalerriak denen artean gogoetatzen hasi dira, lurraldeko biztanle guzietan AKH-en eskaintza helgarri eta kalitatezkoa izan dezaten, adin guzietan.

Horren ondorioz, araudi komun bat sortuko da, erakunde bakoitzaren balioak, helburuak eta ahalak eta tresna berriak zehaztuko dituen.

- Atari digital bat, Ipar Euskal Herrian jende guzien eskura dauden AKHeko eskaintza guzirik erakutsiko dituen, irakasle, medikuntza- eta gizarte-sektoreko profesional, hezitzaile eta abarrentzat.
- Laborategi eta behatoki bat, ekintzek hartzaileengan duten eragina aztertzeko, AKHeko profesionalarekin eta ikertzaileekin elkarlanean.



Irakaskuntza artistikoa indartzea

Euskal Hirigune Elkargoak badu eragina Ipar Euskal Herriko irakaskuntza artistikoaren eskaintzan, hainbat egitura publiko eta elkarteren bidez: Maurice Ravel Kontserbatorioa, Euskal Elkargoko Goi-Mailako Arte Eskola (aldi berean goi-mailako irakaskuntzako estableimendu eta arte-praktika amaturretarako gune gisa), Amikuze-Iholdi-Oztibarreko elkargoko musika eskola eta herriarteko elkarte-eskolen sarea (Iparralai Garazi-Baigorri, Musikas Errobin, Soinubila Hazparneko lurraldean, Xiberoko Músika Eskola Zuberoan, Lanetik Egina Hego Lapurdin, Bidaxuneko lurraldeko musika eskola).

IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ELKARGOKO ESTABLIMENDUAK GARATZEA

>> Maurice Ravel Kontserbatorioa

Maurice Ravel Kontserbatorioa da, bere talde artistiko asoziatua den Iparraldeko Orkestrarekin batera, Euskal Hirigune Elkargoko musika, dantza eta antzerkiaren irakaskuntza artistikoko estableimendu nagusia. Denboraldi bakoitzean 1.800 ikasle eta 20.000 ikusle inguru biltzen ditu; haietarik 8.000 ikasleak dira. 100 langile baino gehiago kontratatzen ditu (irakasleak, teknikariak eta administrariak).

- Irakaskuntza horietarako sarbidea errazteko, **Euskal Elkargoak irakaskuntza artistikoko bi estableimendu berri sortuko ditu, bata Donibane Garazin eta bestea Hendaian**. Hori udalerriekin eta tokiko kultura-eragileekin elkarlanean egingen da, eta bereziki Iparralai eta Lanetik Egina herriarteko musika eskolekin
- Euskal Elkargoak sustatuko du Kontserbatorioaren, Amikuze-Iholdi-Oztibarreko elkargoko musika eskolaren eta elkarte-eskolen arteko harremanak indartzea, proiektu partekatuak eta zubi pedagogikoak garatzeko.

>> Euskal Elkargoko Goi-Mailako Arte Eskola (ESAPB)

Rocailleseko Goi-Mailako Arte Eskolaren eta Baionako Arte Eskolaren bateratzearen emaitza da Euskal Elkargoko Goi-Mailako Arte Eskola (ESAPB). Euskal Hirigune Elkargoaren kultura-elkarlanerako erakunde publikoa da, Frantziako Kultura Ministerioaren babespean. Artearen eta diseinuaren arloko formakuntzak eskaintzen ditu (150 ikasle inguru), eta ia 1.000 pertsona amatur hartzen dituzten jende guztiendako praktika plastikoetako tailerrak ere. Arte- eta kultura-proiektuak ere egiten ditu (delako PAC kurtsoak), eta “Eskola eta Zinema” programan parte hartzen du.

- Eskolari dagokionez, Euskal Elkargoak aztertuko du ESAPBen hedatzea lurraldean.

~ IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ELKARTE-ESKOLAK AZKARTZEA ETA HELGARRI IZATEA

Euskal Elkargoak sostengatzen dituen herriarteko irakaskuntza artistikoko elkarte-eskolek, antzerkian, musikan eta dantzan, 1.500 ikasle baino gehiago biltzen dituzte.

- Haiekin lankidetzan, Euskal Elkargoak irakaskuntza artistikoen prezioen harmonizazioari buruzko ikerketa egingen du.
- Elkarte-egitura horiek garatutako lankidetzazko proiektuak sustatuko dira, dela lehen mailako eskolekin egindako proiektuak, dela talde amaturrekin egindako proiektuak: Arte- eta Kultura-Heziketako proiektuak, ezagutza ikastaldiak edo asteak, etab.

~ EUSKAL KULTURARI DAGOKION IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ERAGILEEI LAGUNTZA EMATEN SEGITZEA

Bertsularien Lagunak elkarteak bertsolaritzaren irakaskuntza eta hedapena antolatzen du Ipar Euskal Herrian, bereziki 30 eskola baino gehiagotan esku hartuz. Bestalde, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) elkarteak dantza tradizionaleko 60 elkarte federatzen ditu. Bi egiturek zinezko gaitasuna garatu dute irakaskuntzari dagokionez, eta, beren parte-hartzerik gabe, bertsolaritzak eta euskal dantzak ez lukete gaur egun halako olderik sortuko.

- Euskal Hirigune Elkargoak Bertsularien Lagunak eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrarekin (IDB) lankidetzan jarraituko du, aspaldi handiko ohitura horiek zaindu, transmititu eta arraberritzeko.



Haur eta gazteentzat egin den sorkuntza artistikoa bultzatzea

Euskal Elkargoak laguntza handia eman nahi die haur eta gazteendako sorkuntzak proposatzen dituzten artistei.

IKERKETA- EDO SORKUNTZA-EGONALDIETARAKO HARRERA ERRAZTEA

Euskal Elkargoak artista profesionalen –artista plastikariak, taula zuzendariak, koreografoak, idazleak, dantzariak eta musikariak– harrera sustatuko du egonaldiak hemen egin ditzaten, haur eta gazteentzat eginak diren obrak aberastu nahi badituzte. Bereziki sustatuko dira gazteekilako elkarriketatik sortzen diren sorkuntza-prozesuak, adibidez, ikastetxeetan egin egonaldien bidez. Egonaldietarako harreraz gain, dirulaguntzak ere ematen ahalko dira.

HAURTZAROARI ESKAINITAKO HITZORDU ARTISTIKOAK SOSTENGATZEA


Euskal Hirigune Elkargoak diruz lagunduko ditu haurtzaroari eta gazteriari buruzko hitzordu artistikoak: haur eta gazteendako kultura-denboraldiak, festibalak, etab.

DIRULAGUNTZA EMATEA SORKUNTZA ETA KOPRODUKZIORAKO

Euskal Hirigune Elkargoak diruz lagunduko ditu lurraldeko kultura-eragileak, ondotik Euskal Herrian eta beste herrialde batzuetan hedatuko diren lanak koproduzitzeko.

“HAUR ETA GAZTEENDAKO” SORTZEN DUTEN ARTISTAK ETA PROFESIONALAK SARETZEN ETA FORMATZEN LAGUNTZEA

Euskal Hirigune Elkargoak haur eta gazteekin lanean ari diren artista eta programazio eta bitartekaritzako profesionalen sarea sustatuko du. Horrela, formakuntza saioak eta topaketa profesionalak eskainiko ditu.



#2

LURRALDE osoan HURBILEKO KULTURA-eskaintza SUSTATZEKO

Distantzia geografikoek muga dezakete kulturarako sarbidea, adibidez, Biarritzen ballet bat edo Zuberoan pastoral bat ikusteko autoz ordu batez ibili behar delarik. Trabak, beste batzuetan, sozialak izan daitezke, ikuskizun batzuen prezioak karioegiak direlarik irabazi ttipiak dituzten jende batzuentzat. Azkenik, oztopoak soziologikoak izan daitezke, herritar anitz sentsibilizatuak ez diren kultura-mota batzuetara joatea eragotziz, dela museo bateko erakusketa bat, dela kabalkada bat, dela kontzertu sinfoniko bat edo dela bertsolaritza txapelketa bat.

Obrak eta ikusleak **lurraldean ibilaraztea**

Euskal Elkargoak kultura-sektorea akuilatuko du obrak eta ikusleak lurraldean ibilarazteko baliabide berriak probatzera. Horretarako, obrak erakusteko baliabide berritzaileak plantan ezarriko dira, kultura-eragileak kultura-ekipamendu gutiko lurraldeetan ariko dira lanean edo kultura-proiektuak ibiltari gisa ere gauzatuko dira. Horrela lagundutako proiektuek, batez ere, biztanleekilako harremanak sortu eta jende guzien kultura-eskubideak sustatu beharko dituzte.



AIPAMEN BEREZIA **Iparraldeko Orkestra:**

Iraganean arras zabaldua zen praktika bazen ere, establimendu berean musika kontserbatorio bat eta orkestra bat elkartzea eredu arraroa da gaur egun Frantzian. Sortu eta bost hamarkada geroago, Maurice Ravel Kontserbatorioko Konpainia Autonomoak zuzentzen du Iparraldeko Orkestra egun. Iparraldeko Orkestra berreraketa baten atarian dago.

Hurrengo denboraldietarako proiektuak lurralde osoan ausarki zabaltzeko gai izanen den ganbera-orkestra baterako norabidea hartzen du, proposatutako programa bakoitzera egokitutako musikari kopuruarekin, Ipar Euskal Herriko errealitatera eta dinamikara doitua, hots, hamar bat musikariko ganbera-musika taldearen eta berrogei musikariren talde handiaren artean, eta urtean bi aldiz gutienez errepertorio sinfoniko zabalagoa proposatuko duena ezohiko gertakarien kariatara edo beste erakunde batzuekin elkarlanean ariko dena anitzez itxura aberatsagoan. Eskoletan eskola-kontzertuak eta musika ezagutzeko ibilbideak eskainiko dira. Urte guziez, gutienez hogeikostalde baliatuko dira baliabide horretaz. Baliabide hori kultura-ekintzako programa aberats baten bihotza izanen da, eta partaideekin batera eraikiko da.

Berreraketa-proiektua mugaz gaindikoa eta hemengo kultura- eta hizkuntza-testuinguru bereziaren arabera izanen da ere. Tokiko eragileekin batera, sorkuntzari buruzko politika bat garatuko da, Iparraldeko Orkestra nazioarteko musika sareetan hedatu ahal izateko. Horrela, Iparraldeko Orkestra Ipar Euskal Herriaren enbaxadoretarik bat bilakatzen ahalko da.

- Mugikortasunari buruzko gogoeta egin beharko da, trantsizio ekologikoaz etengabe axolatzeagatik. Horrela, saiatuko gara aldi berean publiko berriak bilatzea, gazteak hunkitzea, eta, jendeen joan-etorrien karbono aztarna murriztea.
- Lurralde-ikuspegi hori partekatzen duten kultura-eragileekin elkarlanean ariko gara. Horren adibide ona da Euskal Hirigune Elkargoaren eta Malandain Ballet Biarritz zentro koreografiko nazionalaren arteko lankidetzak, zeinak Maitaldia dantza festibala Ipar Euskal Herri osoan hedatzeko aukera ematen baitu.
- Hego Akitaniako Eszena Nazionalarekin eta Iparraldeko museoekin elkarlanean aritzea aztertuko da.
- Euskal Kultur Erakundearekin elkarlanean ariko gara, kultura-praktika tradizionalak lurralde osoan ibil daitezen.

©S.Belocq / Orchestre du Pays basque - Iparraldeko orkestra






©Euskal Elkargoa - Z Studio / Maladain Ballet Biarritz

Obretarako sarbidea erraztea



HAUR ETA FAMILIENDAKO KULTURA-ESKAINTZA PROPOSATZEA

- Euskal Hirigune Elkargoak kultura-denboraldi bat eskainiko die haurrei eskolaldi denboran, eta, noiztenka, eskolaldi denboraz kanpoko ikuskizunak ere. Antzerkia, dantza, musika eta arte bisualak izanen dira lurraldeko hizkuntza guzietan hurbiletik aztertuko diren sail artistiko nagusiak.
- Euskal Hirigune Elkargoak Points de Vue festibala lurralde osoan zabaltzen segituko du. Karrikako arteari eskainia den festibal eta egonaldi artistikoen egitarau honek uztartzen ditu herritarrekilako topaketak eta eremu publikoan obra erraldoien ekoizpena.



Burasoak ikuskizuna ikustera!

Euskal Hirigune Elkargoak gomita eskainiko die kultura-denboraldian parte hartuko duten haur guziei, eskolalditik kanpo ere beren hautuzko ikuskizuna berriz ikusi ahal izan dezaten beren burasoekin.



AIPAMEN BEREZIA

Ikuskizun bizia:

Haur eta gazteendako kultura-denboraldi ibiltari bat

Euskal Hirigune Elkargoaren ikuskizun biziaren kultura-denboraldia 3 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteentzat eta haien familientzat egina da, eskolaldi denboran (ama eskolan eta lehen mailan) eta eskolaldi denboraz kanpo. Irakasle, haur eta gazteen arloko profesional eta praktika artistikoko elkarteekin lankidetzan gauzatzen da.

Denboraldian zehar, talde artistikoek sorkuntza-egonaldia egiten dute hemen, haien ikuskizun berria prestatzeko. Ondotik, urritik maiatzera, 15 ikuskizun inguru eskaintzen dituzte, adin bakoitzari egokituak, lurralde osoan, molde ibiltarian. Sorkuntza-egonaldiez eta ikuskizunen hedapenaz gain, bitartekaritza-ekintzak egiten dira ere, haur eta gazteekilan.

OBRETARAKO SARBIDEA ERRAZTEKO TRESNA BERRIAK SORTZEA

- Euskal Hirigune Elkargoak familiei obretarako sarbidea errazteko baliabideak garatu edo sustatuko ditu. Aztertuko da “ikuskizunerako pasaportea” sortzea, barne hartuko dituen prezio murriztuko sartze bat eta garraio publikoko soluzio bat.
- Euskal Hirigune Elkargoak prezioen taula erakargarria proposatuko du.





©Euskal Elkargoa - Joelle Susperregui / Hecho en casa konpainia

Kultura-eragileen plantatzea erraztea, lan- eta hedapen-lekuak sortuz

Praktika-, errepetizio-, sorkuntza- eta hedapen-lekuek ahalbidetzen dute kultura-eragileak lurraldeetan plantatzea. Bi gauza daude jokoan; alde batetik, kultura-eragileei egoera onean lan egiteko ahala ematea, eta, bestetik, Ipar Euskal Herri osoan haien presentzia artistiko iraunkorra bermatzea.

EXISTITZEN LOKALAK KANBIATZEN LAGUNTZEA

- Gogoeta egitea bereak diren eta hutsik diren eraikin batzuk kultura-lanerako leku bilaka daitezten.
- Bizitegi sozialen alokatzaileak eta udalerriak sustatzea kultura-eragileendako eraikinen eraiki edo zaharberri ditzaten. Horretarako, Euskal Elkargoak dirulaguntzak eta ingeniartza arloko laguntza ematen ahalko ditu.

©S.Belocq / Orchestre du Pays basque - Iparraldeko orkestra



KULTURA-ERAGILEAK HEDATZEN LAGUNTZEA

- Udalerriekin lankidetzan, parte hartzea Baionako Euskal Museoaren garapenean, Maule-Lextarreko Euskal Museoaren adarraren proiektuan eta Euskal Museoaren saretzean Donapaleuko Chemins-Bideak bezalako ondare-guneekin.
- Biarritzeko Atabal musika-aretoa handiaraztea. Donibane Garazin eta Hendaian irakaskuntza artistikoko bi establimendu sortuko ditu Euskal Elkargoak, Maurice Ravel Kontserbatorioaren adarrak eta herriarteko irakaskuntza artistikoko elkarteak han errezibitzeko.
- Musika sinfonikoari egokitu hedapen-leku bat sortzeari buruz ere gogoetatzea, besteak beste, Iparraldeko Orkestraren eta Euskadiko Orkestraren talde handiak hartzeko ahala izanen duena.

UDALERRIEI KULTURA-EKIPAMENDUAK HOBETZEN LAGUNTZEA

- Parte-hartze funts bat proposatzea lurraldeko udalerriei, haien kultura-ekipamenduak hobetzen laguntzeko. Laguntza hori emateko, zenbait urteko kultura-proiektu bat osatu beharko dute udalerriek, eta inbertsio horiek ingurumenean duten eragina kontuan hartu beharko dute. Parte-hartze funts horretarako hautagai izanen diren udalerriek Euskal Elkargoaren laguntza tekniko ere izaten ahalko dute beren kultura-proiektua zehazteko.



AIPAMEN BEREZIA

Biarritzeko Atabalen handitzea

Atabalek, Ipar Euskal Herriko gaur egungo musiken kultura-guneak, 2005eko azaroan ireki zituen ateak, Biarritzen. 700 lekuko hedapen-areto bat, hiru errepetizio-estudio eta musika-eskola bat ditu. 2018ko irailean, Frantziako Kultura Ministerioaren SMAC (gaur egungo musiken eszena) labela eskuratu zuen. Elkargo-Intereseko Ekipamendu bat da. Egoitzaren modernizatzeko Euskal Elkargoak egindako proiektuak aurreikusten du 1.000 pertsona arte bilduko dituen hedapen-aretoaren handitzea, eta, horrez gain, talde artistikoen harrera hobetzea, mugikortasun urriko pertsonen helgarritasuna hobetzea eta beste bi errepetizio-estudio osagarri sortzea.





#3

Hautatutako sail artistikoak egituratzeko

Osasun-krisiaren ondotik artistak eta kultura laguntzeko programa zen Berpizturen jarraipen gisa, baitezpadakoa da sail artistikoak eta kulturalak egituratzea, kultura-eragileen eredu ekonomikoa bermatu eta Ipar Euskal Herrian sorkuntza artistikoaren eta kultura-presentziaren iraupena segurtatzeko.

Euskal Hirigune Elkargoak lehentasuna ematen dio bost sail artistiko laguntzeari, udalerriekin eta beste eragile publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan.

Bost sail artistiko **hautatzea**

Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeko bost sail artistikorik adierazgarrienetan bilduko du bere ekintza: dantza, musika, antzerkia eta arte asoziatuak (zirkua, txotxongiloak eta abar), arte bisualak eta zinema.



Antzerkia eta arte asoziatuak

(zirkua, txotxongiloak eta abar)



Dantza



Musika



Arte bisualak



Zinema

2022an, sail artistiko horiek guztiak ez zeuden antolaketa maila berean. Adibidez, musikak badu jadaneko garatua den formakuntza sare bat (Maurice Ravel Kontserbatorioa eta elkargoko, herriarteko edo herrietako musika elkarte-eskolak), baina sail horretako sorkuntza eta hedapena ez dira oraino arras egituratuak. Aitzitik, zinemaren saila agertu berri da, nahiz badiren jadaneko formakuntza-tresna garrantzitsuak (ikus-entzunezko goi-mailako teknikari brebeta), hainbat festibal hemen antolatzen diren, eta Ipar Euskal Herria gero eta gehiago erabilitako filmaketa lekua den.

Beste sail artistiko batzuk, hala nola irakurketa publikoa, berantago laguntzen ahalko ditu Euskal Elkargoak, agertuko diren lehentasunen eta Elkargoak esku hartzeko dituen gaitasunen arabera. Euskal Hirigune Elkargoak Nafarroa Behereko hiru mediateka ditu bere ardurapean (Irisarrikoa, Donibane Garazikoa eta Donapaleukoa). Hala ere, komeni izanen da udalerrietako mediatekekin saretzearen gaia aztertzea.



AIPAMEN BEREZIA

Points de Vue: arte bisualen saila sostengatzeko festibala

Ipar Euskal Herriko hiri-artearen hitzordu nagusia da Points de Vue festibala. Laguntza handikoa da arte bisualen sailarentzat. 2017ko lehen ediziotik, street art edo karrikako arteen ikuspegi orokor bat ematen du eremu publikoan, artistak gomitatuz gure lurraldeari dioten behako berezia eskaintzera.

Hala, 150 obra baino gehiago egin dira, batez ere gertakariaren epizentroa den Baionan. 2021etik, Euskal Hirigune Elkargoaren babesean, festibala beste udalerrri batzuetan ere ospatzen da, egonaldi artistikoen egitarau baten bidez. Ekoitzitako obrak errealak edo birtualak, iragankorrak edo iraunkorrak dira, eta biztanleen eguneroko biziaren parte bilakatzen dira; hemengo biziaren eta ondarearen berri ematen dute eta gure hiri eta herrien aberastasuna argitan ezartzen dute.

Azkenik, kultura-gertakari hau biztanleen, kultura-eragileen eta hemengo eta hango artisten arteko topagunea da.

Sail artistiko bakoitzeko sostengu-politika pixkanaka eraikitzea

Lehentasunezko sail artistikoak hautatzeko, beharrezkoa da Kultura Zuzendaritzaren barne-antolaketa berrikustea eta tresna eta baliabide espezifikoak sortzea.

LURRALDEKO KULTURA-ERAGILEEI LAGUNTZA- ETA HURBILTASUN-ZERBITZUA ESKAINTZEA

Euskal Elkargoak sail artistiko bakoitzeko pertsona erreferente bat proposatuko du. Kultura-eragile profesionalen eta partaide instituzionalen hurbileko solaskidea izanen da, eta Euskal Elkargoaren laguntza-baliabideak animatzearen eta beste eragile eta partaide batzuekin saretzearen arduraduna izanen da.

FINANTZAMENDU-IRIZPIDE BERRIAK FINKATZEA

Euskal Elkargoak dirulaguntzak emanen ditu kultura-proiektu honen lehentasunak errespetatzekotan: haur eta gazteen aldeko ekintzak antolatzea, lurraldearen ospea indartzea, lurraldeko hizkuntzen presentzia bermatzea eta trantsizio ekologiko eta energetikoa sustatzea (hondakinak murriztea, berrerabiltzea, gertakarietan karbono-aztarna mugatzea, etab.).

URTE ANITZEKO HITZARMENAK SINATZEA

Lurraldeko kultura-eragileen lehen finantzatzaileetarik bat da ardurenean Euskal Elkargoa. Euskal Elkargoaren parte-hartzeak beste laguntza batzuk bilarazten laguntzen du: Departamenduarenak, Eskualdekoarenak, Estatuarenak, mugaz gaindikoak edo Europar Batasunarenak.

Zenbait kultura-eragilerekin urte batzuetarako hitzarmena sinatzeko aukera aztertuko da. Urte anitzeko hiruko hitzarmenak lehenetsiko dira –zeinek udalerrri bat ere barne hartzen baitute– kultura-eragileei sosegua ekarri eta haiek diru mailako autonomia handiagora buruz laguntzeko.



AIPAMEN BEREZIA

Berpiztu!

2020an, COVID-19aren osasun-krisi betean, Euskal Hirigune Elkargoa azkarki mobilizatu zen lurraldeko kultura-eragile profesionalak laguntzeko. Alde batetik, larrialdi-neurriak hartu zituen, hala nola ordainsariak eta dirulaguntza guztiak mantentzea. Bestetik, ofizioekin gogoeta egin zuen, krisiaren ondotik aktibitateari berriz nola ekin denek elkarrekin pentsatzeko. Berpiztu programa 3 urterako asmatu zen (2021etik 2023ra), eta lehen aldiz arte bisualei eta ikuskizun bizi osoari zuzentzen zitzaion. Hala, festibaletara joateko, hedapenerako, komunikaziorako eta abarretarako dirulaguntzak eman zituen. Berpiztuk bi urtez lagundu ditu 200 eragilek abiatutako 350 proiektu.

FORMAKUNTZA BEHARRAK IDENTIFIKATU ETA JAKINARAZTEA

Euskal Hirigune Elkargoa hurbileko solaskidea izanen da, kultura-eragileen beharrak Akitania Berriko Eskualdeari (lanbide-heziketaren arloan eskumena duena) eta Akitania Berriko Eskualdearen kultura-agentziei transmititzeko. Kulturaren arloko goi-mailako formakuntzak garatzen ere jarraitu beharko da, bereziki Kontserbatorioa eta ESAPBen bidez, lurraldeko eragileekin lankidetzan.

EREMU PUBLIKORAKO ETA KULTURARI ESKAINIAK EZ DIREN LEKUETARAKO SORKUNTZARAKO LAGUNTZAN ESPEZIALIZATUTAKO ERAGILE BAT AGERRARAZTEA ETA LAGUNTZEA

Hameka arte fabrika 2009an sortu zen, SIVOM Artzamendiren eta Le Petit Théâtre de Pain antzerki konpainiaren arteko elkarlanaren ondorioz. Badu hamar urte baino gehiago Hameka arte fabrika artisten eta lurraldeko biztanleen arteko elkarriketa gunea dela. 2017an, Euskal Hirigune Elkargoa sortu zelarik, Euskal Elkargoaren eskumenera pasa zen. Luhusoko Harri Xuri ikuskizun-aretoan eta Euskal Elkargoak kudeatzen dituen Makeako dekoratuak fabrikatzeko atelerian ditu egoitzak. Karrikako arteen eta euskarazko antzerkiaren arloan sorkuntza artistikoa laguntzeko proiektu horri esker, baserrialdearen berezitasunetara egokitutako ekintza egin zen. Egonaldien harrera, koprodukzioa eta eremu publikoari eskainitako obren hedapena egin ziren, eta, haiekin batera, biztanleekin elkartzea ahalbidetzen zuen bitartekaritza lan berezia.

- Euskal Elkargoak orain partikulari haur eta gazteei eta bost sail artistiko egituratzeari begira lan egiten duenez, kultura-eragile berri bat bilatuko da, eremu publikoan zein kulturari eskainiak ez diren lekuetan (herriko plazak, pilotalekuak, bordak, etab.) Hameka arte fabrikak egindako lanari jarraipena emateko.

ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANA SUSTATZEA

Euskal Hirigune Elkargoak sail artistiko bakoitzeko topaketa profesionalak antolatzen lagunduko du, bai eta Euskal Elkargoaren kultura-proiektuaren segimendurako eta egokitapenerako hitzordu jarraikiak ere, topaketen eta hitzorduen mugaz gaindiko dimentsioa zainduz.



Praktika herrikoien eta profesionalen arteko hurbilketa **bultzatzea**

Praktika herrikoiek Ipar Euskal Herriko hiri eta herrien bizia pizten eta egituratzen dute. Tokiko kultura-aberastasunaren osagai funtsezko eta historikoa dira, baina baita biztanleen kultura-eskubideen adierazpen zuzena ere. Euskal Elkargoak dinamika herriko horren eta mundu profesionalaren artean zubiak eraikitzen lagundu nahi du, bi aldeak elkarren artean aberasteko.

- Euskal Elkargoak lagunduko ditu kanpoko parte hartzaile artistiko profesional baten laguntza duten, amaturek gidatuko dituzten eta emanaldi publikoak egingen dituzten proiektuak. Lehentasunezkoak izanen dira dimentsio artistikoa (errepertorioko lana, diziplinartekotasuna, etab.) eta herriarteko izaera duten proiektuak.

Ipar Euskal Herrian kulturarako diru-baliabide berriak **garatzea**

Euskal Hirigune Elkargoak garatutako ekintzetarako (Iparraldeko Orkestra, Points de Vue festibala, ikuskizun biziaren denboraldia...) zein kultura-eragileek berek garatutako ekintzetarako, garrantzitsua da funts publikoak eta pribatuak uztartuko dituen eta eragileak haren zehaztearen eta kudeatzearen partzuer egingen dituen finantzamendu-politika bat egituratzea.

“% 1 ARTISTIKOA” BALIABIDEAREN PLANTAN EZARTZEA **BULTZATZEA**

Eraikuntza publikoak apaintzeko betebeharra, “% 1 artistikoa” deituriko baliabidea, tresna interesgarria izan daiteke kultura herritarren eguneroko bizian txertatzeko. Artistei obrak eskatzeko prozedura berezi hori –eraikuntza-proiektuaren aurrekontuaren % 1eko aurrekontua duena– inposatzen zaie Estatuari, haren establimendu publikoei eta lurralde elkargoei, baldintza batzuekin.

- Euskal Hirigune Elkargoa sistematikoki saiaturiko da bere inbertsioetan proiektu artistikoak integratzen




©Ummagumma / Euskal Elkargoaren kultura zuzendaritzaren bulegoak

FUNTS PRIBATUAK MOBILIZATZEKO TRESNA BAT SORTZEA

Mezenasgoa, babesletza, dohaintza –urririk ala ordainez–... Funts pribatuak mobilizatzeko aukerak askotarikoak dira, dela enpresenak –haien erantzukizun sozialeko politikaren esparruan–, dela proiektu batean parte hartu nahi duten herritarrenak.

- Euskal Hirigune Elkargoak gogoeta eginen du funts pribatuak lurraldeko kultura-proiektuetarako mobilizatzeko dituen finantza-tresna bat sortzeko.



©Euskal Elkargoa - Pierre Balacey / Uztaro erakusketa - Berpiztu



#4

euskarazko eta okzitaniera- gaskoizko adierazpen artistikoa indartzeko

Euskal Herrian, kultura hainbat hizkuntzatan adierazten da, betidanik. 2018ko ekainaren 23an, Euskal Hirigune Elkargoak ofizialki onartu zituen euskara eta okzitaniera-gaskoia, frantsesarekin batera, bere lurraldeko hizkuntza gisa. Erabaki horren ondorioz, Euskal Elkargoaren kultura-proiektuak kultura-bizitza eleanitza bultzatuko du.



Euskaraz egiten diren praktika herrikoiei ekarritako sostengua indartzea, **Euskal Kultur Erakundearen bidez**

1990eko hamarkadan, erakunde publikoek erabaki zuten Euskal Kultur Erakundea (EKE) sortzea, gehienik amaturra zen eredu bati egokitutako kultura-ekintza publikoa sustatzeko. EKEren gobernantza-instantzietan Frantziako Estatua, Akitania Berriko Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa eta elkarteetako munduko ordezkariak daude. Kultura-eragileen eta erakunde publikoen elkargunean kokatzen da EKE. Horregatik, euskal kulturaren zerbitzura dagoen hausnarketarako eta ekintzarako lekua da. Bi lan ardatz nagusi ditu:

- Praktika herrikoia eta amaturraren segimendua eta laguntza bermatzen ditu;
- Erakunde publikoak bultzatzen ditu euskal kulturaren berezitasunak hobeki kontuan hartzera beren kultura-politiken barnean, zeinak batez ere agertzen ari diren jardueretara edota profesionalei zuzendutakoak baitira;

Euskal Hirigune Elkargoak EKEri ematen dion laguntza indartuko du, EKEk bere 2023-2026ko ibilbide-erria plantan ezar ahal izan dezan.



Euskarazko sorkuntza eta hedapena **garatzea**

Euskal kulturaren ezaugarri nagusiak dira euskararen erabilpena eta hiri eta herrien biziari erritmoa ematen dioten praktika herrikoi eta parte-hartzaileak. Horren ondorioa dira hemengoak diren forma artistiko bereziak, hala nola bertsolaritza edo pastoralak, eta kantu, antzerki, dantza edo musika tradizionalaren errepertorioak. Horiek denak behin eta berriz transmititzen eta moldatzen dira, sorkuntza garaikidea elikatu eta Euskal Elkargoaren lurraldean elkarbizitza errazteko.

AMATURRA IZATETIK PROFESIONALA IZATERA PASATZEKO IBILBIDEA ERRAZTEA

Euskal Elkargoak eta EKEk laguntzarako tresna amankomunak garatuko dituzte, eta haien esku-hartzeak amatur eta profesionalengana bideratuko dituzte, baliabideen osotasuna eta osagarritasuna bermatzeko.

EUSKARAZKO PRAKTIKA PROFESIONALAK SUSTATZEA

Euskara eta euskal kultura praktika amaturraren ohiko sareetatik haratago zabaltzeko, dirulaguntzetako gainsari batek baloratuko du euskararen presentzia, kultura-eragile profesionalen funtzionamendurako etorkizuneko araudien barnean.

EUSKARAZKO ANTZERKI PROGRAMAZIOA ERAIKITZEA

Euskal Elkargoak euskarazko antzerki programazio bat onduko du, eta bertan Euskal Herri osoko talde artistiko profesionalak egonaldian errezibitu, koproduzitu eta lurraldeko hainbat lekutan programatuko dira.

©EKE ICB - Patxi Beltzaiz / Bertsolari Txapelketa Nagusia



EUSKAZKO SORKUNTZA SOSTENGATZEA

Haur eta gazteentzat euskaraz sortzen duten artistek koproductore guti edo bat ere ez dute, eta horrek mugatu egiten du obren berritzea. Hutsune hori betetzeko:

- Euskal Elkargoak laguntza emanen du ingeniariari eta gainsariari dagokienez.
- Egungo ekintzaren jarraipen gisa, tokiko hizkuntzetako obren parte handi bat sartuko da Euskal Elkargoaren haur eta gazteendako kultura-denboraldian.

Jatorri ezezaguneko tradizio zahar eta herrikoi batetik sortu zen euskarazko antzerkia. Luzaz molde amaturrean egin izan da, kulturari eskainiak ziren ala ez ziren mota orotako lekuetan. Gaur egun, Euskal Herri osoan –mugaren bi aldeetan– sortu eta ematen dute antzerkia talde amaturrek eta konpainia profesionalek.

Euskal kultura belaunaldi gazteei transmititzea

Euskal kulturaren etorkizuna hertsiki lotuta dago euskararen geroari. Hala, ezin da bertsolaritzarik egon euskaldunik gabe, ezin da euskal antzerki edo literaturarik egon idazle euskaldunik gabe. Gure lurraldean gazteen artean euskara berpizten ari bada ere, gazte horietarik gehienak familia erdaldunetan haziak dira, eta, beraz, ardurenean, euskara ikastetxean bakarrik erabiltzen dute.

Belaunaldi gazteek euskara zinez berenganatzeko, beharrezkoa da hizkuntzaren transmisioa eta kulturaren transmisioa elkarri lotzea, haurtzaindegian, aisialdi zentroan, eskolan eta irakaskuntza artistikoko establekimenduan.

EUSKARAZKO ESKAINTZA GARATZEA IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ESTABLIMENDUETAN

Ipar Euskal Herriko irakaskuntza artistiko espezifikokoetako eragileak diren IDB eta Bertsularien Lagunak laguntzeaz gain, irakaskuntza artistikoko establekimenduak euskal kultura transmititzeko leku bilakatu nahi dira. Hartara, Euskal Hirigune Elkargoak “Artea euskaraz” baliabidea indartuko du, zeinak, irakasleen euskarazko formakuntza finantzatzeaz gain, irakasleei euskal kulturaren oinarriei buruzko formakuntza ukateko aukera emanen baitie, EKEekin elkarlanean.

~ EUSKARAZKO ANTZERKIA IRAKASTEN LAGUNTZEA

Euskarazko antzerkiaren arloan kasik ez dago irakaskuntza artistikorik gaur egun. Beraz, Euskal Elkargoak irakaskuntza artistikoko establimenduak akuilatuko ditu euskarazko antzerki eskaintza proposa dezaten, eta Maurice Ravel Kontserbatorioarekin lan eginen du horretarako formakuntza-ibilbide berezia eskaini dezan.

~ EUSKARAZKO AKH-EN ESKAINTZA BERMATZEA

- Arte- eta Kultura-Heziketari dagokionez, Euskal Hirigune Elkargoak kasu eginen du euskarazko edota euskal kulturari buruzko denborak proposa daitezen harrera elebiduna eskaintzen duten establimenduetan, hots, LEHA labela duten hartzaindegietan, Euskaraz Josta labela duten aisialdi zentroetan, eta lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan.
- Euskal Hirigune Elkargoaren kultura-proiektuak haur eta gazteak ditu helburutzat. Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriko kolegioetan esku hartzen segituko du, Departamenduarekin elkarlanean, biek elkarrekin egindako proiektu-deialdi baten bidez.

~ ARTISTAK EUSKARAN ETA EUSKAL KULTURAN TREBATZEN LAGUNTZEA

Euskarazko kultura-eskaintza garatzeko, talde artistikoei eta beste kultura-eragile batzuei zuzendutako euskarazko eta euskal kulturako formakuntza-programa anbiziotsua plantan ezarri behar da. Horretarako, Euskal Hirigune Elkargoak Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Euskal Kultur Erakundearekin hitzarturik lan eginen du.



Gaskoi kulturaren transmisioa, sorkuntza eta hedapena **sustatzea**

Gaskoi kulturari dagokionez, euskal kulturari buruzko ohar berberak egin daitezke eta behar berberak daude. Halere, gaur egun, gaskoi kulturaren aldeko eragile eta baliabide guti daude. Estimatzen da okzitaniera-gaskoiaren 6.000 hiztun inguru daudela Bidaxuneko lurraldean eta Aturri Beherean.

Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearen ondotik, laguntza handiagoa ematen zaie gaskoi kulturari eta okzitanierari. Seinaletikari, Elkargoaren komunikazio-euskarriei eta udalerriekin garatutako helbideratze-politikari esker, okzitaniera-gaskoiaren ikusgarritasuna areagotzen ari da. Irakaskuntzari dagokionez, eskaintza apala da oraindik ere (lehen mailako ikasmaila elebidun bat eta kolegioko hautuzko ikasmaila bat Bidaxuneko lurraldean), baina sentsibilizazio lana egiten da hartzaindegietan, aisialdi zentroetan eta Passem –Euskal Hirigune Elkargoak babesten duen okzitanieraren aldeko lasterketa– bezalako gertakarien bidez.

Bere kultura-politikaren barnean, Euskal Hirigune Elkargoak ekintza boluntaristak plantan ezartzen segituko du, gaskoi kultura sustatzeko.

GASKOI KULTURA SOSTENGATZEKO POLITIKA BAT ABIARAZTEA

Okzitaniera sustatzeko lan egiten duten eragile pribatuei zuzendutako “De Cap Tau Monde” proiektu-deialdia egiten segituko du, eta, gainera, proiektu amaturrei ere zuzenduko die.

GASKOIZKO PRAKTIKA ARTISTIKO PROFESIONALAK BULTZATZEA

Gaskoi kultura ohiko sareetatik haratago zabaltzeko, dirulaguntzetako gainsari batek baloratuko du gaskoiaren presentzia egindako ekintzetan, kultura-eragile profesionalen funtzionamendurako etorkizuneko araudien barnean.

GASKOIZKO ARTE- ETA KULTURA-HEZIKETA (AKH) ESKAINTZA BATEN SEGURTATZEA

Gaskoi kultura etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko, Euskal Elkargoak okzitanier-gaskoi kulturari buruzko sentsibilizazio-moduluak proposatuko dizkie hartzaindegiko, aisialdi zentroetako, irakaskuntza artistikoko establezimenduetako eta lehen mailako eskoletako profesionalei. Gainera, Euskal Hirigune Elkargoak kolegioetan esku hartuko du, Departamenduarekin elkarlanean, biek elkarrekin egindako proiektu-deialdi baten bidez.

GASKOI KULTURAREN ALDEKO LANKIDETZA EGITURATZAILEAK BILATZEA

Gaur egun, Ipar Euskal Herrian ez dago gaskoi kulturarako EKEren baliokiderik. Erronka izanen da tokiko edo urrunagoko eragileekin (Ofici public de la lenga occitana, Lo Congrès permanent de la lenga occitana, Academia gascona, Aci Gasconha, La Ciutat...) lankidetz-egituratzaileak plantan ezartzea, egoerara eta beharretara egokitutako politika ukateko.



#
eranskina
asmoak
Gauzatzeko Bidean

Elkarrekin eraikitako proiektua

2017an sortu zenetik, Euskal Hirigune Elkargoak kulturaren hautuzko eskumena hartu du. Sorkuntzarako laguntza, arte- eta kultur-heziketa, irakaskuntza artistikoaren garapena eta, hein apalagoan, irakurketa publikoa sostengatzea izan dira Elkargoak egin ekintzaren oinarriak.

Horrek aukera eman du lehengo hirigune elkargo batzuek egindako proiektuak bateratzeko, baina halere Ipar Euskal Herrirako kultura-proiektu koherente eta irakurgarririk osatu gabe. Izan ere, ezinbestekoa zen Euskal Hirigune Elkargoak esku hartzeko lehentasunak zehaztea, jakinez kultura, zinezko ondasun komuna, eragile amatur eta profesional anitzen eta Estatuaren, Eskualdearen, Departamenduaren eta udalerrien arteko eskumen partekatuen lanaren emaitza dela.

- Kultura Batzordearen sei bilkura eta bi mintegi;
- Arte bisualetako, musikako, dantzako, antzerkiko eta honen inguruko arteetako profesionalen beharrak identifikatzeko lineako inkesta bat = 100 erantzun;
- Arte- eta Kultura-Heziketaren egoeraren azterketa bat, udalerriekin, Departamenduarekin, Eskualdearekin, Hezkunde Ministerioarekin eta DRACarekin elkarlanean;
- Ipar Euskal Herriko kultura-ekipamenduen datu-base dinamiko bat;
- Kultura-topaketak: 100 artista, konpainia eta kultura-eragile elkartzurik tailerretan, lan sektorearen arrakastaren baldintzak zehazteko.
- Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin elkarriketa erregularra.

Kultura Batzordeko hautetsiek, 2021ean tailerretan bildurik, Euskal Hirigune Elkargoaren kultura-proiektuaren oinarriak ezarri zituzten: haur eta gazteei lehentasuna ematea, lurralde-berdintasuna zaintzea, sail artistikoak laguntzea eta lurraldeko hizkuntzak agertzea bizi kulturalean.

Ondotik, lurraldeko kultura-eragileei lan hori zehaztu eta aberasteko gomita luzatu zitzaion. Beraz, ofizioko profesional anitz kontsultatu ziren, haien beharrak hobeki ezagutu eta finkatutako helburu politikoen plantan ezartze konkretuari buruz hausnartzeko.

Euskal Elkargoaren lurralde-proiektuaren parte da kultura-proiektu hau, eta garai hartako lanaren emaitza da. Ondoko urteetarako Euskal Hirigune Elkargoak hartuko dituen norabideak finkatzen ditu.



Diagnostic **partekatua**

ABANTAILAK

- **Ipar Euskal Herriaren ospea egiten duten eragile eta gertakariak**

Ipar Euskal Herriko kultura-bizitasunaren irudia dira besteak beste label bat duten zenbait erakunde eta eszena, eta festibal eta gertakari anitz –haietan nazioarteko ospea duten batzuk–: Malandain Ballet Biarritz zentro koreografiko nazionala, Euskal Kultur Erakundea, Points de Vue hiri-artearen festibala, Atabal gaur egungo musiken eszena, Baionako Euskal Museoa, Maurice Ravel Kontserbatorioa, Euskal Elkargoko Goi-Mailako Arte Eskola, Hego Akitaniako Eszena Nazionala, FIPADOC, Clarenza topaketen kultura-gunea, Ravel musika klasikoko festibala...

- **Praktika herrikoien bizitasuna**

Musika, dantza, bertsolaritza, kabalkadak, pastoralak, libertimenduak, maskaradak... Lurraldeko praktika herrikoien aberastasunak eta aniztasunak kulturarako zuzeneko sarbidea eskaintzen die Ipar Euskal Herriko biztanle askori. Amaturrak eta profesionalak nahasiz, dinamika kolektibo sendoak sustatzen dituzte herri eta hirien bihotzean. Biztanle batzuek sorkuntzetan eta emanaldietan parte hartzen dute eta, ikusle soilak izateaz haratago, bizi kulturalaren zinezko eragileak dira. Kultura-eragile euskaldunek dimentsio parte-hartzaile hori mantendu eta aspaldiko kultura-formak zaintzen dituzte haien estetikak arraberrituz.

- **Hizkuntza-aniztasuna**

60.000 euskaldun eta 6.000 okzitaniera hitzun daude Ipar Euskal Herrian. Horregatik, Ipar Euskal Herria aberatsa da lurraldearen berezitasuna egiten duten eta adierazpen artistikoen formak –baita sorkuntza garaikidean ere– biderkatzen dituzten hizkuntza biziez.

- **Jarduteko maila egokia**

Euskal Hirigune Elkargoa maila egokitzen jotzen dute hautetsiek eta eragileek, Ipar Euskal Herriko kultura-eragileen arteko elkarrekintzak errazteko, baina baita elkargoak eta Estatua mobilizatzeko ere. Euskal Elkargoa bere politika eta bere kargura dituen beste politika batzuk –mugikortasunak, gizarte-kohesioa, turismoa eta hizkuntza-politika– lotzen dituzten zeharkako baliabideetarako esparru egokia izan daiteke ere.

- **Haur eta gazteen arloa lantzeko gaitasun handia**

Lehengo hirigune elkargoen jarraipen gisa, Euskal Hirigune Elkargoak zinezko esperientzia bildu du haur eta gazteen arloan.

Ipar Euskal Herriko praktika amaturrei buruzko oharra

- 80 txaranga - 400 musikari
- 59 euskal dantza talde - 3.500 dantzari
- 1.800 ikasle Maurice Ravel Kontserbatorioan (*musika, dantza eta antzerkia*)
- 1 000 ikasle Euskal Elkargoko Goi-Mailako Arte Eskolan (*arte plastikoak, argazkilaritza, zizelkaritza...*)
- 1 500 ikasle musika eskoletan

~ AHULEZIAK ETA HUTSUNEAK

- **Kultura-eskaintzarako sarbide zuzengabea**

Hedapen-lekuek, talde artistikoez eta kultura-eragileek herritarrengandik ahalik eta hurbilen egon beharko lukete, herritarrak bizi diren lekua edozein dela ere. Alta, bizi-eremu batean ala bestean bizi, kultura-adierazpen eta kultura-praktika desberdinetarako sarbidea ez da bera. Batzuek, hala nola arte bisualek eta musikak, ez dute sorkuntza-leku nahikorik lurralde osoan.

- **Prezio desberdintasunak**

Prezio desberdintasun handiak daude irakaskuntza artistikoaren arloan. Maurice Ravel Kontserbatorioko ikasleen eta musikako elkarte-eskola batzuen artean x1 eta x4 bitarteko prezio desberdintasunak daude, Euskal Elkargoa behartuz zenbait sail artistikotarako sarbide berdintasunaren gaia aztertzeraz.

- **Kultura-ekipamenduak eskatzen dituzten kultura-eragileak**

Kultura-eragile batzuk nekez heltzen dira sorkuntza-lekuetara eta ez dute beren proiektuak gauzatzeko dirurik.

- **Biziarazi beharreko hizkuntzak**

Euskara eta okzitaniera-gaskoia mehatxatuak dira, baina menturaz ez hein berean. Eta hori arriskutsua da Ipar Euskal Herriko kulturen sorkuntzarako eta transmisiorako.

- **Eramaten diren politiken irakurgarritasun falta**

Kultura erakunde-maila guziek partekatzen duten arloa denez, kultura-eragileek maiz zailtasunak dituzte beren burua kokatu eta beren bidea aurkitzeko lurraldeko erakunde-maila guzien artean. Batzuetan, ez dituzte existitzen diren baliabideak ezagutzen; besteetan, uko egiten diote haiek erabiltzeari, denbora eta giza baliabide eskasez. Kultura-eragileen arteko elkar ezagutza eskasa dago ere, bai eta beste sektore batzuekilakoa ere –hala nola, gizartearekilakoa, turismoarekilakoa, hezkuntzarekilakoa eta mundu ekonomikoarekilakoa.





COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION

Dokumentua frantsesez, euskaraz
eta okzitaniera-gaskoiz formatu
digitalean irakurtzeko:

